

EKAINAK 6

Espainiako
Legebiltzarrerako
hauteskundeak

Emaitez abertzaleak moderatzeko balioko dutela uste du Jauregik

PP pozik Herri Batasuna ez delako Gipuzkoako lehen indar politikoa

Ramon Jauregiren ustez, Rhauteskunde orokorren emaitzek garrantzi handia izango dute bai abertzaletasuna epeltzeko bai HBren baitan gogoeta prozesua zabaltzeko. PP ere pozik azaldu da hirugarren indarra bilakatu delako EAEn.

BILBO

Ramon Jauregiren ustez, hauteskunde orokorrek emaitza «bikainak» ekarri dituzte EAera. PSE-EEren nagusigoa boto eta diputatu kopuruan, HBren jaitziera eta PPren gorakada ikusita, PSE-EEko idazkari nagusiak esan zuen emaitzek garrantzi handia izango dutela autonomi elkarte honetan. Burukide sozialistaren aburuz, «ekainaren 6tik aurrera ezer ez da berdina izango euskal politikagintzan».

Hauteskunde hauen emaitzek «moderaziorako urrats handia ekarriko dute, batez ere abertzaletasuna» adierazi zuen Jauregik. Beronek azaldukoaren arabera baliagarri izango dira, halaber, gizarte kohesioa handitzeko eta «laster gertatuko den baketze progresiborako».

Garrantzi handia eman zion Jauregik Gipuzkoan PSE-EEk nagusigoa lortu izanari. Horren ondorioz Herri Batasunaren barruan mugimenduak gerta daitezkeen itxaropena erakutsi zuen. Mugimendu horiek «biolentzia politikitik kanpoko proiektu politikoa» itxuratzearen aldetik joango lirateke, beraren ustez. HBk emaitzez gogoeta egin beharko duela iritziz ondoren, hauxe gaineratu zuen Jauregik: «Presoak ezin dira gogoeta horretatik kanpo geratu».

PSE-EEko idazkari nagusiaren aburuz, hauteskunde hauek erakutsi dute hautesleok bi alderdion batasuna babestu egin duela. Hurrengo hauteskunde autonomikoetarako ere akuitua izango direla nabarmendu zuen.

Kanpaina bi alderdiren artean polarizatzea «ezinbestekoa» izan dela iritzi zion Jauregik, jokoan Espainiako Gobernua zegoelako. PSOEko kanpainako koordinatzailearen aburuz, jeltzaleek egoera hau saihestu nahi badute «Espainako politikan gogorrago jokatu» behar dute.

ORDOÑEZK Gipuzkoako
PSOE PPko lehenda-
ZORIONDU DU kariak PSOE
zoriondu zuen atzo EAEn izan



PSE-EEko buruzagiak pozik azaldu dira EAEn boto gehien jaso duen alderdia izateagatik.

X. SIMAL

✓ PSE-EEko idazkari nagusiaren ustez, «ekainaren 6tik aurrera ezer ez da berdina izango euskal politikagintzan».

dituen emaitza onak direla eta. PPren emaitzak «bikainak» izan direla ohartarazi zuen, lehenengo aldiz alderdi eskuindarrak Gipuzkoan diputatu bat lortu duela eta.

Gregorio Ordoñezek emaitzak aurrikuspen baikorrenetatik gora daudela adierazi zuen, PP «EAeko hirugarren indar politikoa bilakatu delako, PSE-EE eta EAJren atzetik».

Boto baliagarriak Uari kalte egin diola adierazi du Mosquerak

GASTEIZ

Pablo Mosquera Unidad Alavesako idazkari nagusiak uste du boto baliagarria alderdi erregionalisten kalterako izan dela, eta horien artean bere alderdiaren kalterako. UAk diputatu bat lortzea espero zuen, baina azkenean gogoekin geratu da.

Sozialisten eta PPkoen artean sortu den lehiak «eragin zuzena» izan duela ziurtatu zuen Mosquerak, eta telebistan izandako bi eztabaidak nabarmendu zituen bereziki. Jose Maria Aznar eta Felipe Gonzalez birritan azaldu ziren aurrez aurre telebistako kameraren aurrean, «Espainiako Gobernua jokatzeko», Mosqueraren esanetan.

Espainiako hauteskundeetara lehendabizikoz aurkeztu da UA, eta horregatik emaitzak ezin dai-

tezkeela alderatu esan zuen Mosquerak, «hori egitea irakurketa interesatua egitea litzatekeela». «Halako hauteskundeetan alderdi erregionalistak herritarren laguntzaren % 60 baino ez dute lortzen», ziurtatu zuen.

Sozialistek garaipena kanpainiako azken astean lortu dutela uste du UAk buruzagiak. «Gehiago balio izan du eskuinari beldurra ustelkeriak baino, eta Gonzalezen azken agerraldiak legegintzaldi osoak baino», adierazi zuen hauteskundearen emaitza baloratzeko egin zuen prentsaurrean.

Arabako emaitzak aipatu zituen nazionalisten beherakada nabarmendu zuen. UAk uste du Araban gehienak ez direla abertzaleak, eta horregatik kezu zen Diputazioa eta udal gehienak jeltzaleen esku daudelako.



UAk ezin izan du lortu Arabako diputatua.

EFE

Arzalluz: «Zigor abstentzioa jaso dute HBk eta EA-EUEk»

BILBO

«HBk eta EA-EUEk gertatu zaienaren inguruan gogoeta egiten ez badute, bide txarretik doaz» esan zuen atzo Xabier Arzalluz EAJko lehendakariak. Hain zuzen ere, «zigor abstentzioa» jaso dutela HBk eta EA-EUEk uste du Arzalluzek. Herri Batasunaren botoa «etxean geratu» dela esan zuen Arzalluzek ETBn egindako adierazpenetan. «HBn KASEk duen nagusitasuna dela eta barne kritika dago, eta KASEn taldea erresistentzia topatzen ari da» esan zuen.

«Ados ez dauden taldeak daude eta hasiak dira hori agertzen, HBri botoa ez ematean» gaineratu zuen buruzagi jeltzaleak, «horrek ere ez du esan nahi beste batzuei emango dietenik botoa».

Boto abertzaleak oro har izan duen joerari buruz, «guk genuenari eutsi diogu eta isuririk egon bada bi aldeetara izango zen». EA-EUErekin eta HBrekin gertatutakoa «harrigarria» izan da Arzalluzen ustez.

PSOEren eta PPren arteko bipolarizazioak ez duela EAJn eragin txarrik izan esan zuen. Beldurra «gehiegi erabili» dela bi alderdi horien aldetik uste du Arzalluzek eta lehia hori «guda politikoa» izan dela kasik azaldu zuen.

Egoera hau hala ere, ez dela datozen Europako hauteskundeetan eta autonomikoeetan berriro gertatuko uste du, «emaitzak oso desberdinak izango direlako» bere ustez.